| UDALAREN JABARI PUBLIKOAREN ERABILERA PRIBATIBOA EDO APROBETXAMENDU BEREZIAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA | | ORDENANZA FISCAL REGULADORA DE LAS TASAS POR LA UTILIZACIÓN PRIVATIVA O EL APROVECHAMIENTO ESPECIAL DEL DOMINIO PÚBLICO MUNICIPAL |
|---|---|---|

**7**
**ORDENANTZA/ORDENANZA**

**I. XEDAPEN OROKORRAK**

**1. artikulua**
Udal honek, Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Ogasunei buruzko abenduaren 16ko Foru-Arauari jarraiki, Ordenantza honetako eranskinean zehazten diren tasak ezarri eta eskatzen ditu udalaren jabari publikoaren erabilera pribatiboagatik edo aprobetxamendu bereziagatik. Ordenantza honetan adierazten diren arauen arabera ezarri eta eskatzen dira tasa horiek, eta haren barruan geratzen dira jasota.

**2. artikulua**
Ordenantza hau udalaren lurralde osoan aplikatuko da.

**II. ZERGA-EGITATEA**

**3. artikulua**
Zergapeko egitatea udal jabari publikoaren erabilera pribatiboak edo aprobetxamendu berezia da.

**III. SUBJEKTU PASIBOA**

**4. artikulua**

1. Subjektu pasiboak dira, zergadun gisa, honako hauek: pertsona fisikoak zein juridikoak, eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru-Arau Orokorraren 34. eta 35. artikuluotan aipatzen diren erakundeak, baldin eta beren onura partikularrerako gozatu, erabili edo aprobetxatzen badute modu berezian udal jabari publikoa.

2. Erabilera pribatibo edo aprobetxamendu berezia dela-eta ibilgailuak edo gurdiak espaloietan sartu edo haiek egin, mantendu, aldatu edo kentzeagatik finkatutako tasetan, zergadunaren ordezkotzat joko dira ibilgailuen sarrera horiei sarbidea ematen dieten finka eta lokalen jabeak. Horiek, bidezkoa

**I. DISPOSICIONES GENERALES**

**Artículo 1**
Este Ayuntamiento, de acuerdo con lo previsto en la Norma Foral 9/2005, de 16 de diciembre, de las Haciendas Locales del Territorio Histórico de Bizkaia, establece y exige las tasas por la utilización privativa o el aprovechamiento especial del dominio público municipal especificadas en el anexo de esta Ordenanza, y de acuerdo con las normas que dispone. Las citadas tasas integran esta norma.

**Artículo 2**
La Ordenanza se aplica en todo el ámbito territorial municipal.

**II. HECHO IMPONIBLE**

**Artículo 3**
Constituye el hecho imponible la utilización privativa o el aprovechamiento especial del dominio público municipal.

**III. SUJETO PASIVO**

**Artículo 4**

1. Son sujetos pasivos, en concepto de contribuyente, las personas físicas y jurídicas y las entidades a que se refieren los artículos 34 y 35 de la Norma Foral 2/2005, de 10 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia, que disfruten, utilicen o aprovechen especialmente el dominio público local en beneficio particular.

2. En las tasas establecidas por la utilización privativa o el aprovechamiento especial por entradas de vehículos o carruajes a través de las aceras y por su construcción, mantenimiento, modificación o supresión, tendrán la consideración de sustitutos del contribuyente, los propietarios de

denean, dagozkien onuradun desberdinei jasanarazi ahal izango dizkiete kuotak.

3. Administrazio publikoek, autonomia-erkidegoek eta toki-erakundeek ez dituzte tasak ordaindu beharko jabari publikoaren erabilera pribatiboagatik edo aprobetxamendu bereziarengatik zuzenean ustiatzen dituzten komunikazio-zerbitzu publikoei datxezkien aprobetxamenduengatik, ezta herritarren segurtasunarekin edo defentsa nazionalarekin zerikusia duten aprobetxamendu guztiengatik ere.

**5. artikulua**

Tasak ordainduko dituzte honako hauek: dagozkien lizentziak beren izenean jasotzen dituztenek, eta horien ezean, aprobetxamenduaren onura jasotzen dutenek.

**IV. SALBUESPENAK, MURRIZPENAK ETA HOBARIAK**

**6. artikulua**

Salbuespenak edo bestelako onura fiskalak emateko, aplikatu beharreko xedapen orokorretan ezarritakoa bete beharko da.

**V. ZERGA-OINARRIA**

**7. artikulua**

Tokiko jabari publikoaren erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia gauzatzen den unitate bakoitza da zerga-oinarria, eranskinean jasotakoaren arabera.

**VI. KUOTA**

**8. artikulua**

1. Eranskinean ezarritakoaren arabera, zerga-kuota izango da tarifa bat aplikatzearen ondoriozko zenbatekoa, horretarako adierazitako kopuru finko bat edo bi prozedurak batera aplikatzearen ondoriozko zenbatekoa.

2. Erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziak udal jabari publikoa suntsitu edo hondatzen duenean, onuradunak, behar den tasari aurre egiteaz gainera, osorik itzuli beharko ditu berreraikuntza- edo

las fincas y locales a que den acceso dichas entradas de vehículos, quienes podrán repercutir, en su caso, las cuotas sobre las respectivos beneficiarios.

3. Las Administraciones públicas, las comunidades autónomas y las entidades locales no estarán obligados al pago de las tasas por utilización privativa o aprovechamiento especial del dominio público por los aprovechamientos inherentes a los servicios públicos de comunicaciones que exploten directamente y por todos los que inmediatamente interesen a la seguridad ciudadana o a la defensa nacional.

**Artículo 5**

Las tasas se harán efectivas por aquellos a cuyo favor se otorguen las licencias correspondientes o, en su defecto, por quienes se beneficien del aprovechamiento.

**IV. EXENCIONES, REDUCCIONES Y BONIFICACIONES**

**Artículo 6**

La concesión de exenciones u otros beneficios fiscales se sujetará a lo que se establezca en las disposiciones generales de aplicación.

**V. BASE IMPONIBLE**

**Artículo 7**

Constituye la base imponible cada una de las unidades en que se materialice la utilización privativa o el aprovechamiento especial del dominio público local, en los términos contenidos en el anexo.

**VI. CUOTA**

**Artículo 8**

1. La cuota tributaria consistirá, conforme a lo establecido en el anexo, en la cantidad resultante de aplicar una tarifa, una cantidad fija señalada al efecto, o la cantidad resultante de la aplicación conjunta de ambos procedimientos.

2. Cuando la utilización privativa o el aprovechamiento especial lleve aparejada la destrucción o deterioro del dominio público local, el beneficiario, sin perjuicio del pago de la tasa a que hubiere lugar, estará obligado al reintegro del

konponketa-gastuen kostuak, eta horren zenbatekoa aldez aurretik gordailutu beharko du.

Kalteak konponezinak badira, udalak kalte-ordain bat jasoko du suntsitutako ondasunen balioaren edo kaltetutako ondasunen narriaduraren zenbatekoaren arabera.

Toki-erakundeak ezin izango ditu barkatu, ez osorik ez zati batean, apartatu honetan aipatzen diren kalte-ordainak eta itzulketak.

**VII. SORTZAPENA**

**9. artikulua**

1. Tokiko jabari publikoaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziagatik ordaindu beharreko tasa sortuko da, haren zerga-egitatearen arabera, erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia hasten denean (eta, kasu horretan zenbateko osoa edo zati bat aurretiaz gordailutzea eskatu ahal izango da), ala jarduketa edo espedientea hasten duen eskaera aurkezten denean. Jarduketa ez da egingo edo espedientea ez da izapidetuko dagokion ordainketa egin gabe.

2. Tasaren izaera materialak eskatzen duenean tasa aldizka sortzea, urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean sortuko da eta zergaldiak urte naturala hartuko du. Erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia hasi edo bertan behera uzten den kasuetan izan ezik; kasu horretan, ordea, zergaldia zirkunstantzia horretara egokituko da, eta kuotan dagokion hainbanaketa egingo da eranskinean ezarritako baldintzetan.

3. Subjektu pasiboari egotz ezin dakizkiokeen arrazoiengatik jabari publikoa erabili edo aprobetxatzeko eskubidea eman edo garatzen ez denean, bidezkoa izango da dagokion zenbatekoa itzultzea.

4. Espazio publikoaren okupazioari aplikatu beharreko tarifa egun batetik gorako aldietarako ezartzen bada (astekoa, hilabetekoa edo urtekoa), zerga-likidazioa edo, hala badagokio, dagokion itzulketa egun naturalen arabera hainbanatuko da.

**VIII. LIKIDAZIOA ETA ORDAINKETA**

**10. artikulua**

Udalak kontzeptu bakoitzeko dagokion likidazioa egingo du, eta likidatutako zenbatekoa ordainduko da

coste total de los respectivos gastos de reconstrucción o reparación y al depósito previo de su importe.

Si los daños fueran irreparables, el ayuntamiento será indemnizado en cuantía igual al valor de los bienes destruidos o el importe del deterioro de los dañados.

La entidad local no podrá condonar total ni parcialmente las indemnizaciones y reintegros a que se refiere el presente apartado.

**VII. DEVENGO**

**Artículo 9**

1. La tasa por la utilización privativa o el aprovechamiento especial del dominio público local se devengará, según la naturaleza de su hecho imponible, cuando se inicie el uso privativo o el aprovechamiento especial (y, en este caso, podrá exigirse el depósito previo de su importe total o parcial), o bien cuando se presente la solicitud que inicie la actuación o el expediente, que no se realizará o tramitará sin que se haya efectuado el pago correspondiente.

2. Cuando la naturaleza material de la tasa exija el devengo periódico de esta, el mismo tendrá lugar el 1 de enero de cada año y el período impositivo comprenderá el año natural, salvo en los supuestos de inicio o cese en la utilización privativa o el aprovechamiento especial, en cuyo caso el período impositivo se ajustará a esa circunstancia con el consiguiente prorrateo en la cuota, en los términos establecidos en el anexo.

3. Cuando por causas no imputables al sujeto pasivo, el derecho a la utilización o aprovechamiento del dominio público no se preste o desarrolle, procederá la devolución del importe correspondiente.

4. En el caso de que la tarifa aplicable a la ocupación del espacio público esté fijada por períodos superiores a un día (semanas, meses o años), la liquidación tributaria o la devolución que, en su caso, corresponda, se prorrateará por días naturales.

**VIII. LIQUIDACIÓN E INGRESO**

**Artículo 10**

Por el ayuntamiento se practicará la liquidación que proceda por cada concepto, y la

eranskinak exakzio bakoitzerako ezartzen dituen arau partikularrei jarraituz.

cantidad liquidada se ingresará conforme a las normas particulares de cada exacción contenidas en el anexo.

**IX. TASEN KUDEAKETA**

**IX. GESTIÓN DE LAS TASAS**

**11. artikulua**

**Artículo 11**

Aldizkako epemuga eta jakinarazpen kolektiboa duten zorrei dagokienez, ez da berandutze-interesik eskatuko baldin eta, borondatezko epean, subjektu pasiboak eskatu badu eta udalak ordainketa geroratzeko edo zatikatzeko baimena eman badio. Onura hori lortzeko, tasa sortzen den ekitaldi ekonomiko berean ordaindu beharko da.

En las deudas de vencimiento periódico y notificación colectiva, no se exigirá interés de demora cuando, en período voluntario, el sujeto pasivo haya solicitado y el ayuntamiento le haya concedido el aplazamiento o fraccionamiento del pago. Para la obtención de este beneficio será preciso que el pago de la tasa se produzca en el mismo ejercicio que el de su devengo.

Ordenantza honetan arautitako tasen likidazioari, bilketari eta ikuskapenari dagokionez, bai eta zerga-arloko arau-hausteak kalifikatzeari eta kasu bakoitzean dagozkion zehapenak ezartzeari dagokionez ere, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru-Arau Orokorrean aurreikusitakoa aplikatuko da.

En todo lo relativo a la liquidación, recaudación e inspección de las tasas reguladas por esta Ordenanza, así como la calificación de las infracciones tributarias y determinación de las sanciones que correspondan en cada caso, será de aplicación lo previsto en la Norma Foral General Tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia.

**XI. AZKEN XEDAPENA**

**XI. DISPOSICIÓN FINAL**

Ordenantza honetako aldaketa Udalbatza Osoak onetsi zuen 2017ko uztailaren 5ean egin zen ohiko bilkuran eta BAOean argitaratu eta alegazioak aurkezteko epea bukatzen denetik hasita izango ditu ondorioak.

La modificación de la presente Ordenanza fue aprobada por el Ayuntamiento Pleno en sesión ordinaria celebrada el 5 de julio de 2017 entrando en vigor una vez publicado en el BOB y transcurrido el plazo de alegaciones.

Era berean, Lemoako Udaleko osoko bilkurak ordenantza hori aldatzea onartu zuen 2019ko maiatzaren 6an egindako ohiko osoko bilkuran, eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta alegazioak aurkezteko epea igaro ondoren jarri zen indarrean, eta aldatu edo indargabetzea erabakitzen ez den artean segituko du indarrean.

Asimismo, el pleno del Ayuntamiento de Lemoa aprobó la modificación de esta Ordenanza en sesión ordinaria celebrada el 6 de mayo de 2019, entró en vigor una vez publicada en el Boletín Oficial de Bizkaia y transcurrido el plazo de alegaciones, y permanecerá vigente hasta que sea modificado o derogado.

**I ERANSKINA**
**APROBETXAMENDU MOTA**

**ANEXO I**
**TIPO DE APROVECHAMIENTO**

**A) EPIGRAFEA. HESIAK ETA ALDAMIOAK.**

**EPÍGRAFE A) VALLAS Y ANDAMIOS.**

**I. TARIFAK**

**I. TARIFAS**

Tokiko erabilera publikoko lurrak okupazioa, honako hauekin: salgaiak, eraikuntzako material, obra-hondakinak, hesiak, puntalak, asnillak, aldamioak eta antzeko beste instalazio batzuk.

Ocupación de terrenos de uso público local con mercancías, materiales de construcción, escombros, vallas, puntales, asnillas, andamios y otras instalaciones análogas.

m²-ko edo frakzioko eta eguneko edo frakzioko 0,40 euro.

Por m² o fracción y día o fracción 0,40 euros.

**II. TARIFA APLIKATZEKO ARAUAK**

Hesi eta aldamioen tasa arautzeko, exakzioa metro publiko urbanizatu eta kontsolidatuaren okupazio-azaleraren arabera kalkulatuko da, norberaren edo birpartzelatutako unitatearen lagapeneko lurrak murriztuta.

**II. NORMAS DE APLICACIÓN DE LA TARIFA**

Para la regulación de la tasa de vallas y andamios, la exacción se calculará en base a la superficie de ocupación de metro público urbanizado y consolidado con reducción de los terrenos de cesión propia o de la unidad reparcelada.

**B) EPIGRAFEA. KALIKATAK ETA ZANGAK ZABALTZEA.**

Epigrafe honetako aprobetxamenduek honako hauek ordaindu behar izango dute:

m²-ko edo frakzioko eta eguneko edo frakzioko 4,45 euro.

**EPÍGRAFE B) APERTURA DE CALICATAS Y ZANJAS.**

Los aprovechamientos de este epígrafe satisfarán:

Por m² o fracción y día o fracción 4,45 euros.

**C) EPIGRAFEA. IBILGAILUAK FINKEN BARRUALDERA SARTZEA ERABILERA PUBLIKOKO ESPAZIOEN BIDEZ ETA HORIEK BIDE PUBLIKOAN APARKATZEKO ERRESERBA EGITEA.**

**I. TARIFAK**

LEHENA. Gainontzeko tarifetan aurreikusi gabeko ibilgailuen pasabide bakoitzeko:

a) Aparkatzea debekatzeko eskubidea dagoenean:

1. Pasabide bakoitzeko, 4 ibilgailu gehienez 32,70 euro urtean.
2. Beste ibilgailu bakoitzeko 8,15 euro urtean.

BIGARRENA. Industria- eta merkataritza-eraikinetarako pasabideak:

Eraikinean dauden industriari edo merkatari bakoitzak erabil ditzakeen pasabide bakoitzagatik 106,00 euro urtean.

HIRUGARRENA. Sarrera eraikitzen ari diren eraikinetara:

Espaloiaren gaineko pasabidea metro linealeko edo zatikiko eta urteko edo frakzioko: 48,70 euro urtean.

LAUGARRENA.

Taxientzako aparkalekua gordetzea, ibilgailu bakoitzeko: 90,95 euro urtean.

BOSGARRENA. Pozueta auzoko udal-jabetzako aparkalekuan aparkatzeko erreserba:

**EPÍGRAFE C) ENTRADA DE VEHÍCULOS AL INTERIOR DE LAS FINCAS A TRAVÉS DE ESPACIOS DE USO PÚBLICO Y RESERVA DE APARCAMIENTO EN LA VÍA PÚBLICA.**

**I. TARIFAS**

PRIMERA. Por cada paso de vehículos no previstos en las restantes tarifas:

a) Cuando exista derecho a prohibición de estacionamiento:

1. Por cada paso hasta 4 vehículos 32,70 euros/año.
2. Por cada vehículo adicional 8,15 euros/año.

SEGUNDA. Pasos a edificios industriales y comerciales:

Por cada paso de cada uno de los industriales o comerciantes establecidos en el edificio que pueda utilizarlos 106,00 euros/año.

TERCERA. Entrada a edificios en construcción:

Paso sobre acera por metro lineal o fracción y año o fracción: 48,70 euros/año.

CUARTA.

Reserva de aparcamiento para taxis, por cada vehículo: 90,95 euros/año.

QUINTA. Reserva de estacionamiento en el aparcamiento de propiedad municipal sito en barrio Pozueta.

Lemoako herritarren edo bertan egoitza soziala duten enpresenak diren kamioiak eta atoiak aparkatzeko baimena emango da, baldin eta baimendu beharreko ibilgailuren bat Lemoako Udalerriko trakzio mekanikoko ibilgailuen udal zergaren erroldan alta emanda badago. Pertsona fisiko edo juridiko bakoitzeko baimen bakarra emango da, trakzio-buru bati eta atoi bati dagokiona. Ordaintzen den tasa aparkatzeari buruzkoa baino ez da eta ez da sartzen bestelako kontzepturik, hala nola zaintza edo bestelako modukoak.

Se permitirá el estacionamiento de camiones y sus correspondientes remolques que sean propiedad de vecinos del municipio de Lemoa o empresas con sede social en el mismo, siempre y cuando alguno de los vehículos objeto de autorización este dado de alta en el padrón del Impuesto municipal de Vehículos de Tracción Mecánica del municipio de Lemoa. Únicamente se concederá una autorización por persona física y/o jurídica y referida a una cabeza tractora y un remolque. La tasa que se abona únicamente se refiere al estacionamiento, sin estar comprendido en la misma ningún otro tipo de concepto como vigilancia u otros.

Hileko tasaren zenbatekoa: 20,60 euro ibilgailuko (trakzio-burua eta atoia), eta urtero likidatuko da.

Importe de la tasa mensual: 20,60euros/vehículo (cabeza tractora y remolque) la cual se liquidará anualmente.

Aparkalekuaren erabiltzaileek hesia irekitzeko beharrezkoa den urrutiko kontrola eskuratzeko, 50 euroko fidantza jarri beharko dute. Fidantza hori itzuli egingo zaie aparkalekua erabiltzeari uzten diotenean, betiere urrutiko kontrola egoera onean badago.

La obtención del mando necesario para la apertura de la barrera por parte de los usuarios del aparcamiento, se obtendrá mediante el depósito de una fianza de 50 euros que le será devuelta cuando dejen de usar el aparcamiento y siempre que el mando se encuentre en buen estado.

**II. TARIFA APLIKATZEKO ARAUAK**

a) Espaloiko pasabideen zabalera zintarri beheratuaren metro linealen arabera zehaztuko da, beheramendu hori dagoen kasuetan. Espaloiko zintarria beheratuta ez balego, ez eta espaloi hura kenduta ez balego ere, neurria izango da, bere osoan, kasu bakoitzean lokalera edo orubera sartzeko lekuak duen luzera erabilgarriarena.

b) Tarifan ezarrita dauden eskubide eta ariel edo tasak % 25eko errekargua izango dute 3 tonatik gorako pisu osoa duten kamioiak direnean, autobusak eta atoiak.

c) Ondorio guztietarako, ulertuko da ibilgailuen pasabideen gutxieneko luzera hiru metrokoa dela. Luzera handiagoko pasabideak hartuko dira ibilgailu-pasabide moduan aipatutako neurria benetako luzeran sartzen den guztietan eta beste pasabide bat gehiago zatiren bat soberan badago.

d) Lokal batek sarbide bat baino gehiago baditu, lehenak dagokion epigrafearen arabera ordainduko du tributua, eta gainerakoek, berriz, dagozkien tasen % 50.

e) Erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia hasteko unean baimen berriak badira, kuotaren hainbanaketa hurrengo hilabeteko lehen egunetik aurrera kalkulatuko da. Hainbanaketa hori bera,

**II. NORMAS DE APLICACIÓN DE LA TARIFA**

a) El ancho de los pasos de acera se determinará por los metros lineales de bordillo rebajado en los casos en que exista dicho rebaje. Si el bordillo de la acera no estuviere rebajado, ni suprimida la misma, la medida será, en toda su extensión, la de la longitud útil del hueco de entrada al local o solar de que en cada caso se trate.

b) Los derechos y tasas establecidos en la tarifa experimentarán un recargo del 25 % cuando se trate de camiones de más de 3 toneladas de peso total, autobuses y remolques.

c) A todos los efectos se entenderá que la longitud mínima de los pasos de vehículos es de tres metros, considerándose los de mayor longitud como tantos pasos de vehículos cuantas veces quepa dicha medida en la longitud real que tengan, y otro más si sobra alguna fracción.

d) Si un mismo local tuviese dos o más accesos, el primero tributará con arreglo al epígrafe correspondiente y el resto por el 50 % de las tasas que le correspondan.

e) Si se tratase de nuevas autorizaciones en el momento de iniciarse el uso privativo o el aprovechamiento especial, el prorrateo de la cuota se calculará a partir del primer día del siguiente

hilabeteari dagokionez, bajen kasuan ere aplikatuko da. Jadanik baimenduta dauden aprobetxamenduak edo erabilerak badira, kuotaren hainbanaketa urte bakoitzeko lehen egunetik aurrera kalkulatuko da.

Lehenengo tasaren kuota dagokion lizentzia edo baimena ematearekin batera likidatuko da. Hurrengo ekitaldi ekonomikoen kuotak ordainagiri bidez jasoko dira, tasa horiek aplikatzeko eta administratzeko oinarritzat hartu behar den matrikula edo errolda onartu ondoren.

f) Eskatzaileek ordaindu beharko dituzte pasabideak instalatu, zaindu, eraberritu, kendu eta erreserbatzeko gastuak, bai eta aparkalekuak seinaleztatzeko gastuak ere.

**D) EPIGRAFEA. JABARI PUBLIKOA OKUPATZEA, ZENBAIT INSTALAZIOEKIN.**

**TARIFAK**

a) Kioskoak eta bide publikoko postuak:

a.1) Egunkariak, liburuak eta aldizkariak eta ausazko jokuak saltzeko kioskoak eta postuak: 0.37 euro/m$^2$/eguna.

a.2) Gaztainak, txurroak, gozokiak eta izozkiak saltzeko postuak 0.33 euro/ m$^2$/eguna.

a.3) Kaleko salmenta-postuak jaietan 0,33 euro/m$^2$/eguna.

a) Mahai, aulki eta mahaitxoengatik, m$^2$-ko edo frakzioko eta hilabeteko edo frakzioko:

Estalitako lekuak: 1,68 euro m$^2$/hileko.
Estali gabeko lekuak: 0,83 euro m$^2$/hileko.

b) Salmenta automatikoko aparatuak:

m$^2$ edo frakzio bakoitzeko, eta urte edo frakzio bakoitzeko 26,32 euro.

c) Obra-hondakinak edo materialak uzteko edukiontziak:

Egun edo frakzioko: 0,97 euro/m$^2$.

d) Eraikuntza-obretan beharrezkoak diren etxolak eta karabanak, garabiak, hala nola eraikuntzako materiala.

m$^2$-ko edo frakzio bakoitzeko eta egun edo frakzio bakoitzeko 0,76 euro.

mes. Este mismo prorrateo, referido al mes, será aplicado en los casos de bajas. Si se tratase de aprovechamientos o usos ya autorizados el prorrateo de la cuota se calculará a partir del primer día de cada año.

La cuota de la primera tasa será liquidada simultáneamente al otorgamiento de la licencia o autorización correspondiente. Las cuotas de ejercicios económicos sucesivos se percibirán mediante recibo una vez aprobada la matrícula o padrón que ha de servir de base para la aplicación y administración de estas tasas.

f) Los gastos de instalación, conservación, reforma, retirada de pasos y reserva de aparcamientos, así como la señalización de los mismos, será de cuenta y cargo de los solicitantes.

**EPÍGRAFE D) OCUPACIÓN DEL DOMINIO PÚBLICO CON INSTALACIONES DIVERSAS.**

**TARIFAS**

a) Quioscos y puestos en la vía pública:

a.1) Quioscos y puestos para la venta de periódicos, libros y revistas y juegos de azar 0,37 euros/ m$^2$/día.

a.2) Puestos de venta de castañas, churros, confituras y helados 0.33 euros/m$^2$/día.

a.3) Puestos de venta ambulante en fiestas 0.33 euros/ m$^2$/día.

a) Por mesas, sillas y veladores, por m$^2$ o fracción y mes o fracción:

Lugares cubiertos: 1,68 euros m$^2$/mes.
Lugares descubiertos: 0,83 euros m$^2$/mes.

b) Aparatos de venta automática:

Por m$^2$ o fracción y año o fracción 26,32 euros.

c) Contenedores para depósito de Escombros o materiales:

Por día o fracción 0,97 euros/m$^2$.

d) Casetas y caravanas necesarias en obras de construcción, grúas, así como material de construcción:

Por m$^2$ o fracción y día o fracción 0,76 euros.

Hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio- eta komunikazio-sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituen apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuari jarraikiz, epigrafe honetan aipatutako elementuetako edozein oinezkoentzako ibilbidearen luzetara lerrokatuta jarri edo kokatuko dira. Espaloien kasuan kanpoko ertzean, inoiz ez fatxadaren ondoan eta kasu guztietan oinezkoen ibilbidearen zabalera librea 2 m baino gutxiagora murriztu gabe, eta gutxienez 1,5 m-ra hektarea bakoitzeko 12 etxebizitza edo gutxiagoko dentsitatea duten urbanizazioetako espaloietan.

Atendiendo al Decreto 68/2000 de 11 de abril, por el que se aprueban las normas técnicas sobre condiciones de accesibilidad de los entornos urbanos, espacios públicos, edificaciones y sistemas de información y comunicación, cualquiera de los elementos mencionados en este epígrafe, se dispondrán o colocarán alineados en el sentido longitudinal del itinerario peatonal. En caso de aceras, en el borde exterior, nunca junto a la fachada y en todos los casos sin reducir la anchura libre del itinerario peatonal a menos de 2 m y no menos de 1.5 m en las aceras de urbanizaciones de densidad igual o inferior a 12 viviendas/hectárea.

**E) EPIGRAFEA. UDALAREN TITULARTASUNEKO BIDEAK ERABILTZEA.**

**EPÍGRAFE E) UTILIZACIÓN DE CAMINOS DE TITULARIDAD MUNICIPAL**.

**I. TARIFAK**

Tarifa hauek ezartzen dira:

1. Apea eta materialak ateratzea: 0,45 euro/m³.

Fidantzen zenbatekoa:

- Km 1eraino 2.10 euro/m³.
- Km 1etik 2ra 3.10 euro /m³.
- 2 km baino gehiagora 3.60 euro/m³.

Gutxieneko fidantza, nolanahi ere, 2.167 eurokoa izan beharko da.

I. **TARIFAS**

Se establecen las siguientes tarifas:

1. Extracción de apeas y material 0,45 euros/m³.

Cuantía de las fianzas:

- Hasta 1 km 2.10 euros/m³.
- De 1 km a 2 km 3.10 euros/m³.
- Más de 2 km 3.60 euros/m³.

La fianza mínima deberá ser, en todo caso, de 2.167 euros.

**II. TARIFAK APLIKATZEKO ARAUAK**

1) Araudi honen xedea da udal-titulartasuneko landa-bideak ibilgailu astunek erabiltzea edo modu berezian aprobetxatzea, ibilgailu horien tonajearen ondorioz bide-zoruak hondatzeko arriskua badago.

2) Udalerriko bideak hondatzen direla ulertuko da 8 tonatik gorako pisu gordina duten ibilgailuen zirkulazioarekin. Inola ere ez da baimenduko 25 tonatik gorako pisua duten ibilgailuak zirkulatzea.

3) Landa-bideak ibilgailu astunek eta, bereziki, egurra eta apeak garraiatzen dituztenek erabili ahal izateko, aldez aurretik udal-lizentzia lortu beharko da.

4) Garraiolariek, orokorrean, eta, bereziki, zurgai diren ustiategietako garraiolariek edo jabeek edo kontratistek, udalaren landa-bide bat erabili behar

**II. NORMAS DE APLICACIÓN DE LAS TARIFAS**

1) Es objeto de regulación de la presente normativa la utilización o aprovechamiento especial de los caminos rurales de titularidad municipal por vehículos pesados, cuyo tonelaje suponga un riesgo de deterioro de los firmes de aquellos.

2) Se entenderá que los caminos municipales sufren un deterioro en sus firmes con la circulación de vehículos de peso bruto superior a 8 toneladas. En ningún caso se permitirá la circulación de vehículos de peso superior a 25 toneladas.

3) La utilización de los caminos rurales por vehículos pesados y, en particular, por aquellos que transporten madera y apeas estará sometida a la previa obtención de licencia municipal.

4) Los transportistas, en general, y en particular, transportistas o propietarios de

badute, udal-lizentzia eskatu beharko dute honako zehaztapen hauek jasota:

a) Zur-jabearen edo garraiatzen den kargaren datuak, kontratistarenak eta garraiolariarenak.
b) Mendiaren izena eta kokalekua, hala badagokio.
c) Ibilgailuen ibilbidea.
d) Garraiatu beharreko estereo edo metro kubikoko bolumena edo, hala badagokio garraiatutako pisua.
e) Entresaka eta garraioa hasteko eta amaitzeko data.
f) Garraioan erabilitako ibilgailu-mota, tona-kopurua, matrikula, egin beharreko bidaia-kopurua eta bidai bakoitzeko karga.
g) Beti adieraziko da Nekazaritza Sailak edo erakunde eskudunak egin beharreko mozketa egiteko baimena eman duela.
h) Bidearen inguruan egurra edo beste material batzuk pilatuko badira, adieraziko dira horien bolumena eta lekua, hala badagokio.

5) Kanona ordaintzera eta fidantza gordailutzera behartuta daude dagokion erabilera-lizentzia izapidetu eta lortu duten edo eskatu behar zuten pertsona fisiko edo juridiko guztiak.

Garraiatutako objektuaren jabeak eta garraioa egiten duena izango dira erantzule subsidiarioak eta solidarioak.

6) Udal langile eskudunek, ikuskatu eta argazki-erreportajea edo bideokoa hartu eta gero, bidearen zoruaren egoerari buruzko txostena egingo dute aprobetxamendu bereziaren egin baino lehenago, eta aprobetxamendua burutu ondoren.

Azken txostenean, eragindako kalteak baloratuko dira, eta horiek kontuan hartuko dira fidantza itzultzeko. Arduradunak zuzenean konpondu ahal izango ditu kalte horiek, berehala, edo udalak berak egin ahalko du arduradunak hala egiten ez badu, eta jarritako fidantzaren zenbatekoa kenduta. Fidantza hori nahikoa ez bada kalte guztiak konpontzeko, erabiltzaileari edo arduradun subsidiarioari eskatuko zaio horren gastuak ordaindu arteko aldea.

7) Garraioak irauten duen bitartean, garraiolariaren betebeharra izango da lizentzia emateko udal-erabakiaren eta ordainketa-gutunen

explotaciones maderables o contratistas que precisen la utilización de un camino rural municipal, deberán solicitar la oportuna licencia municipal, haciendo constar los siguientes extremos:

a) Datos del propietario maderista o de la carga que se transporta, del contratista y del transportista.
b) Nombre y situación del monte, en su caso.
c) Trayecto de los vehículos.
d) Volumen en estéreos o metros cúbicos a transportar o, en su caso, peso transportado.
e) Fecha de inicio y de la finalización de la entresaca y del transporte.
f) Tipo de vehículo dedicado al transporte, tonelaje, matrícula, n. º de viajes a realizar y carga por viaje.
g) Siempre se hará constar la autorización de la corta a realizar por el Departamento de Agricultura o entidad competente.
h) Si se va a realizar acopio de madera u otros materiales en las proximidades del camino, indicando volumen y lugar, en su caso.

5) Están obligados al pago del canon y a depositar la fianza todas las personas físicas o jurídicas que hayan tramitado y obtenido la correspondiente licencia de utilización o debieran haberla solicitado.

Serán responsables en forma subsidiaria y solidaria los propietarios del objeto transportado y quien realice el transporte.

6) Por el personal municipal competente, previa inspección y toma de reportaje fotográfico o con vídeo, se emitirá un informe sobre el estado del firme del camino con anterioridad y posterioridad al aprovechamiento especial.

En el informe final, se valorarán los desperfectos causados, los que serán tenidos en cuenta a efectos de devolución de fianza. La reparación podrá efectuarse directamente por el responsable de forma inmediata o por el propio Ayuntamiento, en su defecto, con la correspondiente deducción del importe de la fianza depositada. En el caso de que esta no fuese suficiente, se exigirá al usuario o responsable subsidiario la diferencia hasta cubrir los gastos de la misma.

7) Será obligación del transportista, durante toda la duración del transporte, portar el original o copia de la notificación del acuerdo municipal de

LEMOA UDALA

jakinarazpenaren jatorrizkoa edo kopia eramatea, kanona ordaindu dela eta fidantza jarri dela egiaztatzeko, udaltzainek hala eskatuta agiriok erakutsi ahal izateko.

8) Ibilbidean ikusten bada titulartasun pribatuko bide bat dagoela, bidearen jabeei entzunaldia emango zaie hamabost egunez, hasitako espedientearen berri izan dezaten.

9) Landa-bideen aprobetxamendu berezia urteko hilabete guztietan baimenduko da, baina eguraldiaren mende egongo da; horrela eguraldia sikua izango da eta zorua ez da heze egongo. Baldintza horiek ez betetzearen ondorioz kalteak sortuko balira garraiolaria eragindako kalteen erantzule izango da.

10) Bidearen inguruetan materialen metaketa egin ahal izateko, derrigorrezkoa da eskabidean jasotzea. Kasu bakoitzean, lekurik egokiena aztertuko da, eta biltzaileari zehazki adieraziko zaio zein den leku hori.

11) Bideen aprobetxamenduaren onuradunak arduratuko dira bideak eta haien instalazio publikoak erabili aurreko baldintza berberetan egoteaz. Nahitaezkoa izango da bideak garbi mantentzea uneoro, eta bidean uzten diren egurraren, harrien, lurraren eta abarren hondarren ondorioz mozketak edo igarobide normaleko zailtasunak gertatzea saihestea. Horretaz guztiaz 6. artikuluko baldintzetan erantzungo da, hargatik eragotzi gabe justizia-auzitegiei erantzukizunak eskatzea eta bidetik igarotzea berehala geldiaraztea.

Bat baino gehiagok aldi berean udal-bide berberak erabiltzen badituzte eta kalteak badaude, erantzukizunak proportzionalki banatuko dira erabiltzaile horien artean.

Lemoan 2020ko apirilaren 17an.

concesión de licencia y de las cartas de pago justificantes del pago del canon y del depósito de la fianza a fin de que sean exhibidos a requerimiento de los agentes municipales.

8) Cuando en el recorrido se apreciase que incluye un camino de titularidad privada, se dará audiencia durante un plazo de quince días a los propietarios del camino para que tengan conocimiento del expediente incoado.

9) El aprovechamiento especial de los caminos rurales será autorizado todos los meses del año, pero quedará supeditado a las condiciones climatológicas, de forma que el tiempo ha de ser seco y el firme no encontrarse húmedo. Será responsable del incumplimiento por los daños que se causen el transportista.

10) Para realizar acopio de materiales en las proximidades del camino, es obligatorio hacerlo constar en la solicitud. Se estudiará en cada caso el lugar más idóneo, y así se le indicará al depositante.

11) Los beneficiarios del aprovechamiento de los caminos se responsabilizarán de que estos y sus instalaciones públicas permanezcan en las mismas condiciones anteriores a la utilización. Será obligatorio mantener limpios en todo momento los caminos evitándose que se produzcan cortes o dificultades de tránsito normal a consecuencia de los restos de madera, piedras, tierra, etc., que se depositen en el camino, y de todo ello se responderá en las condiciones del artículo 6. º, sin perjuicio de exigir responsabilidades ante los Tribunales de Justicia y de la paralización inmediata del paso por el camino.

En el supuesto de que sean varios los que utilicen simultáneamente las mismas vías municipales y existan desperfectos, se procederá a una distribución proporcional de las responsabilidades entre los diversos usuarios.